

AOT / TAG 2016

IRIZPENA

XXX sozietateak lursail bat eskuratu zuen, 2013ko urtarrilean, Arraldeko Udalarekin egindako trukatzeko baten bidez, gai inerteen hondakindegia kontrolatu bat jartzeko.

2013ko maiatzaren 12an, XXX sozietateak eskatu zuen udal plangintzaren Arau Subsidiarioen aldaketa puntual bat egiteko, lursail jakin batzuk lurraldearen eta egituren sistema orokor gisa kalifikatuak izan zitezela, bertan gai inerteen hondakin kontrolatu bat jartzeko.

Behin dokumentazioa osatuta, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterlana eta derrigorrezko izapideak eginda, udaleko osoko bilkurak hasiera batean onartu zuen Arau Subsidiarioen aldaketa, 2014ko irailaren 22ko erabakiaren bidez; eta, ondoren, 2015eko apirilaren 18an, behin-behinean onartu zuen aldaketa hori.

Baina, 2015eko maiatzaren 24an egindako udal-hauteskundearen ostean, udal-korporazio berri bat sortu zen, eta hark erabaki zuen ekimena berrikustea ingurumenaren arloko beste planteamendu batzuetan oinarrituta, zeinetara ez zen egokitzen Arau Subsidiarioen aldaketa-ekimen hori.

Udaleko osoko bilkuraren 2015eko uztailaren 20ko erabakiaren bidez, hasitako Arau Subsidiarioen aldaketan atzera egitea erabaki zen. Orduan, XXX sozietateak errekurtsioa aurkeztu zuen, administrazio-bidean, erabaki horren aurka, zeina ezetsi baitzen osoko bilkuraren 2015eko irailaren 22ko erabakiaren bidez (urte bereko hil beraren 29an jakinarazi zen erabaki hori).

Hala, bada, XXX sozietateak, 2016ko urtarrilaren 10ean, ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu zuen, udal jardunak sortutako kalteak direla-eta. Izan ere, sozietateak zenbait inbertsio eta gastu egin zituen,

uste baitzuen udal plangintzaren aldaketak berak nahi zuen moduko amaiera izango zuela.

lido horretan, kalte-ordaina jaso beharreko honako kontzeptu hauek adierazten ditu:

-Arraldeko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko dokumentua, aldaketaren dokumentu teknikoa dena, Ak eta Pk arkitektoek idatzia: 4.000 euro.

-Z ingeniariak idatzitako ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterlana, zeina aldaketa puntualarekin batera izapidetzen baita justifikatzeko proposatutako aldaketak betetzen dituela ingurumenaren arloko alderdiak: 4.000 euro.

-Hondakindegia eraikuntza-proiektua, Z ingeniariak egina: 12.000 euro.

- Bere garaian trukaturako lursailen balioa, 200.000 euroan kuantifikatzen dituen.

Eskaera hori ikusita, Arraldeko Udalak laguntza eskatu dio Bizkaiko Aldundiari, hark erreklamazioaren onarpenari buruzko irizpena egin dezan.

Zuri agindu dizute txostena idazteko, eta, bertan, honako hauek egin behar dituzu:

- a) Aztertu behar duzu zer ondare-erantzukizunaren araubide juridiko aplikatu behar den eta ea betekizunak betetzen diren aztertutako kasuan.
- b) Adierazi behar duzu zer izapide egin behar diren prozedura hori ebatzeko.
- c) Eta, hala denean, zer kontzeptuk jaso lezaketen kalte-ordaina.

DICTAMEN

La mercantil XXX adquirió un terreno, mediante una permuta con el Ayuntamiento de Arralde, en enero de 2013, con la idea de instalar un vertedero controlado de inertes.

La mercantil XXX instó, con fecha 12 de mayo de 2013, la tramitación de una modificación puntual de las Normas Subsidiarias (NNSS) de planeamiento municipal para calificar como sistema general de territorio e infraestructuras unos determinados terrenos, con el objetivo de instalar un vertedero controlado de inertes.

Una vez completada la documentación y elaborado el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, tras los trámites preceptivos, el Pleno del Ayuntamiento aprobó inicialmente la modificación de las NN.SS. mediante acuerdo de 22 de septiembre de 2014 y, posteriormente, con fecha 18 de abril de 2015, aprobó provisionalmente la citada modificación.

No obstante, tras las elecciones locales celebradas el 24 de mayo de 2015 surge una nueva Corporación municipal que decide revisar la iniciativa en atención a nuevos planteamientos medioambientales, con los que la iniciativa de modificación de las NNSS no se adecuaba.

Mediante Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de 20 de julio de 2015 se acuerda desistir de la modificación de las NNSS emprendida, Acuerdo que es recurrido en vía administrativa por la mercantil XXX, siendo desestimado el recurso por Acuerdo del Pleno de 22 de septiembre de 2015, notificado el 29 del mismo mes y año.

La mercantil XXX presenta, con fecha de 10 de enero de 2016, una reclamación de responsabilidad patrimonial por los daños generados con la actuación municipal, pues realizó una serie de inversiones y de gastos en la

confianza de que la modificación del planeamiento municipal finalizaría en el sentido instado por la reclamante.

En este sentido, y como conceptos indemnizables relaciona los siguientes:

-Documento de la Modificación Puntual de las NNSS de Arralde, redactado por los arquitectos A.y P. y que constituye el documento técnico de la modificación: 4.000 euros.

-Documento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, redactado por la ingeniería Z y que se tramita conjuntamente con la Modificación Puntual, para justificar el cumplimiento de los aspectos medioambientales en la modificación propuesta: 4.000 euros.

- Realización de un proyecto de construcción del vertedero realizado por la Ingeniería Z. 12.000 euros.

- Valor de los terrenos permutados en su día, que cuantifica en 200.000 euros.

A la vista de esta solicitud; el Ayuntamiento de Arralde solicita el auxilio de la de la Diputación de Bizkaia para que elabore un dictamen sobre la procedencia de la reclamación efectuada.

A Vd. se le encarga la redacción del reseñado informe en el que deberá:

- a) Analizar el régimen jurídico de la responsabilidad patrimonial aplicable y la concurrencia de los requisitos en el supuesto analizado.
- b) La exposición de los trámites a realizar para resolver dicho procedimiento.
- c) En su caso, conceptos que deberían ser indemnizados.